

19/09 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Ainara Ibañez
Ana Marta Iriarte
M^a Teresa Ojanguren
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2019ko ekainaren 20ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko irizpena: **Lanbide Heziketako Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutua (IVAF) sortzeko eta bertako lanpostu-zerrenda onartzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Ekainaren 28ko 4/2018 Legeak, Euskadiko Lanbide Heziketari buruzkoak, lanbide heziketako eredu konbinatu bati buruzko hainbat xedapen garrantzitsu aipatzen ditu. Eredu konbinatu horretan integratzen da urriaren 10eko Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko 1/2013 Legean definitutako Lanbide Heziketako Sistema Bateratua eta, gainera, protagonismo handia ematen zaie berrikuntza aplikaturako eta ekintzailetzarako ikaskuntzei. Ikaskuntza horiei esker gai izango gara aurre egiteko teknologien eta produkzio-sistemen eboluzio azkarrari, zeintzuek berekin baitakarte etengabe eguneratuta egon beharra eta gehiago trebatu beharra hobetzeko eta enplegarritasunari eusteko.

Ekainaren 28ko 4/2018 Legeak eta Lanbide Heziketako V. Planak proposatutako helburuak lortzeko, ezinbestekoa da egitura organiko espezializatu berri bat.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 11 artikulua dauzka, 4 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile 1 eta 2 azken xedapen, eta haxe da edukia:

1. artikulua **Lanbide Heziketako Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutuaren (IVAF)** sorkuntza eta izaera zehazten ditu.
2. artikulua Eranskinean jasotako lanpostu zerrenda onartzen du.
3. artikulua bere helburuak eta funtzioak ezartzen ditu.

4. artikulua Plan estrategikoaren eta urteko planaren ezaugarriak ezartzen ditu.
5. artikulua antolakuntzaren egitura finkatzen du: zuzendari exekutiboa eta zuzendari bat hiru jarduera-eremuetako bakoitzerako, kide horiek osatuko dutelarik zuzendaritza-taldea.
- 6, 7 eta 8. artikuluek zehazten dute zeintzuk diren eremu bakoitzaren eta eremuko zuzendarien funtzioak. 9. artikulua zuzendari exekutiboaren funtzioak finkatzen ditu.
10. artikulua esleitutako aurrekontuari eta kontratazio aukerei buruzkoa da.
11. artikulua zentroari atxikitako irakasleen hornikuntza-sistemari buruzkoa da, eta lanpostuen balorazioa ere aipatzen du.
12. artikulua dio institutu honek Hezkuntza Sailak bere esku jarritako ondasunak izango dituela.

Lehen xedapen gehigarriak dio posible dela langile laguntzaileak izatea zailtasun handiko proiektu zehatzetarako. Langile horiek zerbitzu-eginkizun bidez esleituko dira.

Bigarrenak dio institutuak LHko zentro bateratuen autonomia erregimena izango duela.

Hirugarren xedapen gehigarriak dio IVACeko lanpostu zerrendako plazak eta IVAFek izango dituenak (II. eranskinean daude jasota) baliokideak direla.

Lehen xedapen iragankorrak dio IVACen materialak esleituko zaizkiola institutuari.

Bigarren xedapen iragankorrak dio ezen, IVACeko lanposturen batek ez badu baliokiderik institutu berrian, bi gauza gerta daitezkeela: langileak behin betiko destinoa badu mugiarazi egingo da eta zerbitzu-eginkizunetan badago, lanpostutik kenduko da.

Xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du irailaren 8ko 169/2015 Dekretua, Lanbide Heziketari buruzko Ezagutzaren Euskal Institutua sortzen duena eta bertako lanpostu zerrenda onartzen duena.

Lehen azken xedapenak institutu berriari esleitzen dizkio 2. artikuluan definitutako funtzioekin zerikusia duten eta IVAC aipatzen duten araudiko erreferentzia guztiak.

Bigarrenak baimena ematen du indarrean sartu dadin.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Irailaren 8ko 169/2015 Dekretuak Lanbide Heziketari buruzko Ezagutzaren Euskal Institutua (IVAC) sortu zuen eta bere lanpostu zerrenda onartu zuen. Dekretu horren arabera, IVAC izango zen, lanbide heziketaren ikuspegitik, bizialdi osoko ikaskuntza eta ezagutzaren garapena sendotzeko estrategia, programa eta prozedurak definituko zituen organo teknikoa.

IVACek lehenagoko IVAC institutua berregituratzen zuen eta bere baitan hartzen zituen gerora desagertu zen Lanbide Heziketaren Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziaren bi eremu.

Orain aldatzea proposatzen den IVAC organismoari buruzko balorazio positiboa egin zuen Kontseiluak bere 15/11 irizpenean.

Plangintza eta Antolakuntzako zuzendariaren memorian justifikatzen da institutu honen eraldaketa, gorago aipatutako Dekretu horretan finkatutako helburu eta funtzioek ez baitute balio Lanbide Heziketako V. Planaren helburu guztiei erantzuteko.

Lanbide Heziketako V. Planak bere 9. Arlo Estrategikoan dio 3 egitura organiko espezializatu sortuko direla, eta horietako bat da Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutua (IVAF), zeinaren helburua baita beharrezko ikaskuntza-metodologiak bultzatzea pertsonak gai izan daitezen aurre egiteko ezagutza teknikoetan, bitartekoetan eta lanaren helburu eta antolakuntzan gertatuko diren aldaketei.

9. arlo estrategiko horretan ezartzen dira institutuaren helburuak eta jardueraildoak:

1. helburua: Etorkizuneko Ikaskuntzen Behatoki bat garatzea
2. helburua: profesional berrien premiei aurre hartzeko gaitasunak eskuratzeko behar den prestakuntza diseinatzea.
3. helburua: Ezagutzaren Euskal Institutuaren funtzioak integratzea eta barneratzea.

Kontseilua ados dago institutu berriari esleitzen zaizkion helburu eta funtzioekin, horien artean daudelarik IVACek garatzen zituenak.

I. eranskinak bere baitan hartzen ditu institutu honen lanpostu zerrenda eta lanpostu bakoitzaren eskakizun orokorrak, zeintzuen artean baitago eskatutako hizkuntza eskakizuna.

Komeni da zuzendari exekutiboaren postuak, bere izaeragatik eta bete behar dituen funtzioengatik, HE2 eskakizuna izatea.

Arau honetan erregulatzen diren beste alderdi batzuei dagokienez, aurreko Dekretuan ezarritakoen berdinak dira: plan estrategikoa eta urteko plana, antolakuntzako egitura, aurrekontua eta kontratazioa, langileak eta lanpostuen hornikuntza.

Kontseiluak balorazio positiboa egiten du arau-proiektuaz, ulertzen duelako egungo gizartearen aldaketa azkarrek etengabeko egokitzapena eta eboluzioa eskatzen dutela premia sozialetara eta lan-arloko eszenatoki berrietara moldatzeko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2019ko ekainaren 21ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Nélida Zaitegi

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA